




Gora egin du EAEn eratutako enpresen kopuruak

EAEn eratutako enpresak
Urte bakoitzeko urtarriletik apirilera




Iturria: INE.

2024ko lehen lauhilekoan 1.277 enpresa eratu ziren Euskadin, hau da, aurreko urteko aldi berean baino %13,8 gehiago. Hori horrela izanda, eten egin da hiru urtez jarraian izandako joera, ia aldatu ez diren erregistroekin, eta 2014tik eratutako enpresa kopururik handiena lortu da.

Aireportuen jarduerak gora egiten jarraitzen du

Aireportuetatik bidaiatu duten pertsonak
Urte bakoitzeko maiatza. Milakoak




Iturria: AENA.

Maiatzean, EAeko aireportuetatik bidaiatu zuten pertsonen trafikoa 700.000 joan-etorrira hurbildu zen. Kopuru hori, aurreko urteko aldi berearen aldean %6,2 hazi zena, maiatz batean inoiz lortu den handiena da.



EAEko ekonomiaren termometroa 97,4an kokatu da

EAEko ekonomiaren termometroa
Indizea




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Maiatzean, EAEko ekonomiaren termometroa hazkunde biziko eremutik gertu kokatu zen, 97,4 puntuko balioarekin. Bizkortze hori barne eskariaren hazkundeak eta esportazioen hobekuntza nabarmenak azaltzen dute.

Kontsumoko prezioak %3,9 hazi ziren maiatzean

EAEko KPI indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

INEk argitaratu dituen azken datuen arabera, **KPIak gorantz jarraitu zuen, eta maiatzean %3,9an kokatu zen, aurreko hileko erregistroa baino lau hamarren gorago.** Bilakera hori elektrizitatearen prezioen igoeraren eta erregaien jaitsiera txikiagoaren isla da. Halaber, azpiko inflazioak ere gora egin zuen, aurreko %3,1etik oraingo %3,3ra.